IRAKASLEON SOLDATA 2026. URTE AMAIERAN: ZER GERTATZEN ARI DA?

2010. urtetik aurrera administrazio publikoetako langileok genuen eros-ahalmenaren %20 inguru galdu dugu. 15 urtean zehar gure soldatak KPIa igo dena baino gutxiago igo dira.

Hau da, gure soldatak igo diren arren, ordaindu behar ditugun ondasun eta zerbitzuen prezioak are gehiago handitu dira.

2025. urtearen lehen hilabeteetan irakasleok grebara jo genuen. Besteak beste, gure soldata hemen erabakitzeko eskubidea eta galdutako eros-ahalmena berreskuratzea aldarrikatu genuen. Azkenean, ELAk izan ezik, beste sindikatu guztiek sinatutakoak ez zituen bederatzi greba egunetan aldarrikatutakoak bete:

· Ez zen 2010etik 2025ra galdutakoaren zati txiki bat bera ere berreskuratu.
· Ez zen ziurtatu etorkizunean berriz ere galtzen ez jarraitzea.

→ Zer sinatu zuten zehazki?

2025-2028 urte bitarterako %2 eta %2,5 arteko ustezko soldata igoerak adostu zituzten. Igoera hori nominan 2104 kodearekin agertzen den osagarrian barne bildu dute. **Igoera horiek baina, gure soldataren 3 kontzeptu bakarrik hartzen dituzte kontuan:**

- Soldata
- Destino osagarria
- Berariazko osagarri orokorra

Hilabetero jasotzen ditugun **beste kontzeptuak, aldiz, igoerarik gabe** geratu dira:

- Antzinatasuna
- Oinarrizko aldea
- B.O. kapitalizazioa
- B.O. berariazko dedikazioko 1., 4. eta 5. graduak
- Arduren osagarriak (tutoretza, mintegi burutza, etab) eta bestelako osagarriak
- B.O. Z. Publik. Irakask. Konplex. *(soldata igoerari ere ez zaio hurrengo urtetako igoera aplikatuko)*

Ondorioz, **igoera errealak ez dira %2a edota %2,5koak, txikiagoak dira**. Igoerak hiru kontzeptutan jasotako diruari bakarrik aplikatzen zaizkionez, zenbat osagarri gehiago edo antzinatasun handiagoa, langileak jasotako igoeraren ehunekoa orduan eta baxuagoa da.



→ %20ko galera metatu ondoren, zer gertatu da gure soldatekin 2025etik aurrera?

Soldataren bilakaera modu egokian baloratzeko adibide zehatz bat erabili behar dugu, antzinatasun edota bestelako osagarrien arabera igoeraren ehunekoa desberdina baita. Kasu honetan, alderaketa egiteko Amaia izena duen lankide baten egoera erabiliko dugu. Amaia LH-ko tutorea da eta 18 urteko antzinatasuna du. Elementu horiekin, 2025-2026 ikasturtean aplikatuko zaion igoera ez da %2koa, %1,72koa baizik. 2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteetan aldiz, aplikatuko zaion igoera %2,16koa izango da, ez %2,5ekoa.

Bestetik, azterketa erreala izan dadin espainiar estatutan UGT, CCOO eta CSIF sindikatuek adostutakoa ere kontuan izan behar dugu. 2025eko azaroaren 27an, Espainiako Gobernuarekin langile funtzionarioentzako soldata igoerak adostu zituzten 2025-2028 urteetarako. Igoera horiek irakasleentzat sinatutakoei gehitu behar zaizkie. Madrileko akordio hori EAEko irakasleena sinatu eta 6 hilabetera adostu zen. Agerian geratzen da beraz, hemen sinatutakoak ez zuela eros-ahalmena galtzen ez jarraitzea inolaz ere bermatzen.

Gauzak horrela, honakoa da adibide moduan hartutako Amaiaren soldataren bilakaera zehatza:

2025. urtea		
KPI igoera EAEn	**Soldata igoera osotara**	**Emaitza**
%3,6 2024ko KPI igoera 2025 hasieran aplikatu zen	**%3,36** · Estatukoa: %2,5 · EAEkoa: %0,86* ** EAEko igoera uztailean aplikatzen hasi zen. 12 hilabetetako igoera %1,72 bada, 6 hilabetetako igoera erreala %0,86 da.*	**%0,24ko galera** Aurreko 15 urtean galdutako %20ri metatu beharrekoa

2026. urtea		
KPI igoera EAEn	**Soldata igoera osotara**	**Emaitza**
%2,9 2025eko KPI igoera 2026 hasieran aplikatu zen	**%3,36** · Estatukoa: %1,5 · EAEkoa: %1,86* ** Lehen 8 hilabetetan %1,72, azken lauretan %2,26.*	**%0,47ko igoera** Aurretik galdutako %20,24ari kendu beharrekoa

2027. urtea		
KPI igoera EAEn	**Soldata igoera osotara**	**Emaitza**
%5 iraileko datua 2026ko KPI igoera 2027 hasieran aplikatuko litzateke	**%2,16 + %4,5??** · Estatukoa: %2,16 Estatuan UGT, CCOO eta CSIF-ek adostutako %4,5eko igoera indarrean dagoen Gobernuaren jarraipenari lotua. Ez da ziurra.	**%3ko galera izateko arriskua**

→ Ez da akordio eskasak sinatzeko garaia!

Langile klasea prezioen etengabeko igoera pairatzen ari da. Erosketak egitea, gasolindegira joatea edota etxebizitza alokatu edo erostea ezinezkoa bihurtzen ari da. Gure eragin arloan egoera horri aurre egiteko modu eraginkorrenetakoa KPIaren igoerari lotutako soldatak adostea da. Era horretan behintzat ziurtatuko dugu etorkizunean gaur garena baino txiroagoak ez izatea eta sortutako aberastasuna banatzea.

Horregatik, ELAk irizpide zurruna du ezarrita: **gure ordezkariek gutxienez eros-ahalmena mantentzea ziurtatzen duten akordioak bakarrik sinatu ditzakete**. Horrela egiten dugu gehiengoa garen sektoreetan: Hezkuntzako Sukalde eta Garbiketa, Gizarte Ekimena, Bizkaiko erresidentziak, Gipuzkoako metala eta eraikuntza ala Arabako ostalaritza, adibidez.

KPIaren araberako soldata igoerak!
Langileon pobretzearen aurka egiteko eta sortutako aberastasuna banatzeko!

ELA HEZKUNTZA

2026ko urria